OLABIDE IKASTOLA

## HAUR HEZKUNTZAKO
## GURASO ORDEZKARIEN BILERA

**OLABIDE** Ikastolan,
2006eko abenduaren 16an.
Maialako Bilera
**Hasiera Ordua:** 9:00

## *REUNION de ETAPA*
## *de REPRESENTANTES de CLASE*

En **OLABIDE** Ikastola
16 de diciembre de 2006.
Reunión de Nivel.
**Hora de comienzo:** 9:00

| **MAILA**<br>**Curso** | **IZEN ABIZENAK**<br>Nombre y apellidos | |
|---|---|---|
| **HH ZUZENDARIA**<br>Director EI | XABIER ALONSO | X |
| **ZUZENDARI PEDAGOGIKOA**<br>Directora Pedagógica | ANDONE RUIZ | X |
| **ARTEZKARITZA**<br>Consejo Rector | JOSU ZUBIAGA | X |

| | | |
|---|---|---|
| **HH 3 A** | Sol Mª Menendez Otamendi | X |
| **HH 3 B** | Jesus Mª Sanchez Carrasco | X |
| **HH 3 D** | Irune Ubierna Urbieta | X |
| **HH 3 E** | Jesus Eduardo Ibañez Nuñez | X |
| **HH 3 F** | Isidoro Corchado Duran | X |

| | | |
|---|---|---|
| **HH 4 A** | Mª Lucia Esteban Alvarez | X |
| **HH 4 B** | Esther Landa Antia | X |
| **HH 4 D** | Esther Mendialdua Irasuegi | X |
| **HH 4 E** | Beatriz Guinea Aramendi | X |

| | | |
|---|---|---|
| **HH 5 A** | Aquilino Barrero Lobato | X |
| **HH 5 B** | Luis Mariano Hernandez Perez | X |
| **HH 5 D** | Mikel Etxeberria Beristain | X |
| **HH 5 E** | Ricardo Esteban Quintana | X |

| | | |
|---|---|---|
| **HH 6 A** | Sofia Garcia Conde | X |
| **HH 6 B** | Roberto Pinilla Fernandez | X |
| **HH 6 D** | Arturo Sevillano Lopez | X |
| **HH 6 E** | Juan Martin Sorarrain Odriozola | X |

## *GAI-ZERRENDA*

1- AURKEZPENA.
2- KURTSO HASIERAKO BALORAPENA.
3- HHko IRTEERAK.
4- TXERTOAK, IKUSMEN ERREBISIOAK.
5- JANTOKIKO EKINTZAK.
6- GELAKO ZERRENDAK.
7- IRADOKIZUNAK ETA GALDERAK.

## *ORDEN DEL DIA*

1- PRESENTACIÓN.
2- VALORACION COMIENZO DEL CURSO.
3- ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS EN EI.
4- VACUNACIÓN, REVISIONES.
5- ACTIVIDADES DEL JANTOKI.
6- LISTAS DE CLASE.
7- RUEGOS Y PREGUNTAS.

**1- AURKEZPENA.**

Mahaikideak aurkezten dira; Artezkaritzako kide bat, Zuzendari Pedagogikoa eta Haur Hezkuntzako Etapako Zuzendari berria, alegia.

Zerrenda pasatzen da etorri diren Haur Hezkuntzako Guraso Ordezkarien artean.

Bilerako gai-zerrenda osatzeko prozedura azaltzen da, bilera orokorrean tratatuko diren gaiak alde batera utziaz: autobusak eta hauen ibilbideak; kuotak eta ordainagiriak; eta gurasoei zuzendua dagoen bizikidetza programa.

**2- KURTSO HASIERAKO BALORAPENA.**

Kurtso hasierako Haur Hezkuntzako Etapako plangintza orokorra azaltzen da kurtsoz kurtso, ondoko puntuak baloratuz: egindago guraso bileren plangintza, ikasleen irakaste eta ikaste prozesuaren jarraipena eramateko tutorearekin egin diren elkarrizketak, noten boletinak eta 2, 3, 4 eta 5 urteko egokitzaldiak berrikusiz.

Arestian aipatu dena gehiago jorratu nahian, mailaz maila balorazioa ematen da:
- 2 urtekoak: familiei eskerrak ematen zaizkie umeen egokitzaldian egindako ahaleginengatik; halaber, tutorearekiko harremanen garrantzia eta, denboraldi honetan, errutinak edo ohiturak sortzearen garrantzia gogorazten da.

- 3 urtekoak: 2 urteko 5 geletatik, 3 urteko 4 geletara pasatu da. Hau dela eta, gela bakoitzeko batez besteko ume kopuru berria 9/10na da. Nahiz eta ume gehienak haurtzaindegietatik edo Ikastolako 2 urteko geletatik datozen, egokitzaldiaren prozesuak bat egiten du barneko sentimenduak adierezteko beharra izanarekin: estutasuna, ziurtasunik eza...
- 4 urtekoak: Egokitzaldiaren tartea arinago izan da. Tutoren aldaketa gauzatu izan den arren, lehendik umeek maileko tutoreak ezagutzen zituzten.
- 5 urtekoak: Tutore berdinarekin jarraitzen dute; beraz, ez da egon aldaketa nabarmenik egokitzaldian; umeak egokitzeko berriko eguneroko errutinetan eta gelako ohituretan ahaleginak egin behar izan dituzte, ordea.

**3- HHko IRTEERAK.**

Ikasturte honetarako Haur Hezkuntzako Etapako irteeren plangintza aurkezten da, mailaz maila eta hiruhilekoka. Honen dokumentazioa banatzen da.

**1- PRESENTACIÓN.**

Se realiza la presentación de los miembros que forman la mesa, formada por un miembro del Consejo Rector, la Directora Pedagógica y del nuevo Director de Etapa.

Se pasa lista entre los asistentes a la reunión de representantes de clase en la Etapa de Educación Infantil.

Se informa a las familias del procedimiento realizado para la elaboración del orden del día, habiéndose excluido aquellos temas que se fueran a tratar en la reunión general: autobuses y recorridos; cuotas y recibos; y programa de convivencia con la formación las familias.

**2- VALORACION COMIENZO DEL CURSO.**

Se explica la planificación en general de la Etapa de Educación Infantil en este primer comienzo de curso por niveles, valorándose los siguientes puntos: revisión programación de las reuniones realizadas, entrevistas tutor para el seguimiento del proceso de enseñanza aprendizaje de los alumnos, boletín de notas y período de adaptación correspondiente a 2, 3, 4 y 5 años.

Sobre este último punto señalar lo siguiente por cada curso:
- 2 años: dar las gracias a las familias sobre el esfuerzo realizado en acompañar, ayudar y motivar a los niños en el período de adaptación; recordar la importancia de la comunicación con el tutor; e indicir la importancia de crear rutinas en este período.
- 3 años: de cinco aulas de 2 años, se han pasado a 4 gelas. Por lo que, el número de alumnos nuevos por cada grupo asciende a 9/10 niños por aula/tutor. Se recuerda que aunque la mayoría de los niños vienen de guarderías y de las aulas de 2 años de la Ikastola, es un proceso que va acompañado de unos sentimientos internos que necesita exteriorizar: ansiedad, inseguridad…
- 4 años: el tiempo de adaptación ha sido rápido. Aunque se ha producido un cambio de tutor, éstos ya conocían a los tutores.
- 5 años: siguen con el tutor de 4 años, por lo que no ha habido ningún cambio en este aspecto. La adaptación principal ha sido el de volver a las rutinas diarias de clase.

**3- ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS EN EI.**

Se presentan las actividades complementarias para la Etapa de Educación Infantil programadas para el presente curso escolar, por trimestre y por nivel. Se entrega la documentación de la programación.

| | |
|---|---|
| **4- TXERTOAK, IKUSMEN ERREBISIOAK.** | **4- VACUNACIÓN, REVISIONES.** |
| Urtero bezala HH5 mailan, 4 urtekoak, ikasturtean zehar (urtarrila eta otsailaren bitartean) txertoa jarriko diete, ikastolak bideratzen du Osakidetzak antolatzen duen ekintza. Halaber, familiak abisatzen dira eta beraien baimena eta umearen txartela jaso behar da txertoa ikastolan jartzeko. | Se señala que todos los años a los alumnos de 4 años, se procede a la vacunación correspondiente a la edad en la Ikastola a través del servicio que ofrece Osakidetza y ésta se realizará entre los meses de Enero y Febrero. Así mismo, se informa que se necesita de la conformidad de las familias para poderla realizar, así como, de la cartilla de vacunación. |
| Azaroan ikusmen errebisioak maila honetako ikasleei egin zitzaien eta arazoren bat agertu bada familia horiei bakarrik jakinarazi zaie. | Por otra parte, las revisiones de la vista se han realizado en el mes de noviembre, informándose a aquellas familias en cuyos hijos/as se hayan detectado aspectos a corregir. |
| **5- JANTOKIKO EKINTZAK.** | **5- ACTIVIDADES DEL JANTOKI.** |
| Ikastolako Haur Hezkuntzako Jantoki Zerbitzuko ekintzeen plangintza aurkezten da, kurtsoz kurtso, eta bazkaltzen bukatzen dutenetik berriro arratsaldeko ordu lektiboetara arte. | Se presenta la programación elaborada por la Ikastola para el servicio del Jantoki por cada nivel, en el tiempo que transcurre desde que comen hasta el comienzo del horario escolar de la tarde. |
| **6- GELAKO ZERRENDAK.** | **6- LISTAS DE CLASE.** |
| Klaseko zerrendak guraso izen-abizenak gehitzearen eskaerari dagokionez, Ikastolako prozedura egokitzen eta gaurkotzen ari da, gaur egun datuak babesteko legeak dioenera. Hau dela eta, familien datu pertsonalen konfidentzialtasuna babestu, errespetatu eta kontutan izan behar da. | Sobre la petición de que en listas de clase que incorporen los nombres de los padres, se explica que la Ikastola está actualizando y adecuando los procedimientos de transmisión de información dados por la Ley de Protección de Datos vigente al día de hoy. Hay que tener en cuenta la confidencialidad de los datos de las familias. |
| Bestalde, prozesu eguneratze hau ezin da oztopo izan, familien arteko komunikatzeko edo gelako guraso ordezkariari bere zereginak aurrera eramateko. Beraz, tarteko bideak aztertu eta landu behar dira. | Se incide en la importancia de que en esta adecuación o búsqueda de otros canales de comunicación, esto no sea un problema para la labor del representante de clase. |
| **7- IRADOKIZUNAK ETA GALDERAK.** | **7- RUEGOS Y PREGUNTAS.** |
| Posta elektroniko zerbitzuak eragin dituen kezkak Guraso Ordezkari batzuk jakinarazten dituzte; zerbitzuaren berririk ez izatea eta posta elektronikoko erabileraren arazoak, alegia. Era berean adierazten da, banan-banan harremanetan jarriko garela pairatu diren arazoei erantzun egokia emateko. | Se expresa la preocupación de varios representantes de clase, por no haber podido hacer uso de las cuentas de correo electrónico y del desconocimiento de la propia existencia del mismo, por parte de otros. Nos pondremos en contacto para solventar individualmente todos los problemas al respecto. |
| Ikastolak erabiltzen duen familiei oharrak komunikatzeko bidea ez dela nahikoa azpimarratzen da, umeek etxera bueltatzeko bidean galtzen dutelako eta soinean daramaten plastikoa hutsik doalako. Zeloarekin ixtea proposatzen da. Ideia ondo baloratzen da eta Tutoreei informatuko zaie. | Se señala que el procedimiento de notificación para con las familias que los niños llevan en plásticos no es suficiente, dado que en la mayoría de los casos llegan vacíos. Se valora positivamente el cerrar los plásticos con celo. Se informará a los tutores para su valoración. |
| Jantokiko 2 urteko ume bati egiten zaion jarraipenari buruz galdetzen da. Ume batek bazkaltzen ez badu, gurasoei egunean bertan jakinarazten zaiela familiei gogorazten da; | Se pregunta sobre el procedimiento a seguir en el seguimiento del alumno en el Comedor para con los niños de 2 años. Se informa que en el caso de que no comieran, se les |

| | |
|---|---|
| eta normaltasunez bazkaltzekotan, ordea, ostiralean ume banakako informe pertsonala banatzen dela. Halaber, 2 urteko ume bat bazkaldu gabe egon dela eta ez dela informatu izan azpimarratzen du Guraso batek. Informazio hau zuzenean egiaztatuko da Jantokiko begiraleekin.<br><br>Jantokiko erratioari dagokionez, ez dela errespetzen ari adierazten da. Jantokiko begirale bat dagoela 2 urteko 5/6 umekiko nabarmentzen da. Gainontzeko umeentzat erratioa handitzen doa, 3, 4 eta 5 urtekoentzako begirale bat 9/10 umekiko izanik.<br><br>Azkenik, familia batzuk kezkatuta daude Ikastolako sarreretan egoitzaren barruan beste guraso asko egoteaz. Informatzen da Ikastolako kanpoko hesiak automatikoki kontrolatuko direla eta programatuak izango direla. Helburu nagusia da ikasleen segurtasuna babestea. Bigarren helburua da, hain zuzen ere, ordu lektiboetan gelen barruan gurasoak ez egotea zalantza pertsonalak Tutoreak berak argitzen. Izan ere, banakako elkarrizketa bilerak horretarako baitaude. Dena den, ezarritako helburu hauek ezin dute familien eta Tutoreen arteko komunikazioa oztopatu edozein unetan ezinbestekoa bada. | informaría en el mismo día; y en el caso de comer normalmente, al final de la semana con la elaboración de un informe personal por alumno. Así mismo, se señala que un niño de 2 años no ha comido y no se ha informado. Se contrastará la información con las propias monitoras del Comedor.<br><br>Sobre el ratio de las monitoras del Comedor se incide que no se está cumpliendo. Se responde que por cada 5/6 niños de 2 años hay una monitora. El ratio aumenta para el resto, pasando a ser de 9/10 niños por monitor.<br><br>Para finalizar, se muestra la preocupación de las familias por la presencia masiva de propias familias en los tiempos de entrada a la Ikastola. Se señala que próximamente se adecuará las entradas y salidas al nuevo sistema de cierre centralizado. El primer objetivo es la seguridad de nuestros alumnos. El segundo es evitar que en horario escolar sean tratadas para solventar temas puntuales que se podrían solucionar mediante reuniones individuales o la utilización de cualquier medio de comunicación. Estos objetivos no tienen que ser ningún obstáculo para aquellas familias que tengan la necesidad de comunicarse con el tutor de sus hijos/as para cualquier tema de importancia. |

Goizeko 10:15ak direlarik, bilera bukatutzat ematen da.

Siendo las 10:15 horas de la mañana, finaliza la reunión.